

## **UDAL ESKOLA KONTSEILUAK 2016KO URRIAREN 13an IZANDAKO BATZARRARI DAGOKION AKTA.-**

Batzarreko aztergaiak ekintzaka eta ordu desberdinetan aztertu dira.

Idazkaria: Bittor Zarrabeitia (HNT1)

### **1).- 9:30ean, DANTZARI EGUNA 2016**

Bertaratuak:

Marisa Alodamizetxebarria (Euskara zinegotzia)  
Xabier Bilbao (Berritzeguneko Euskara Teknikaria)  
Alaitz Beaskoetxea (Seber Altubeko ordezkaria)  
Txaro Agirre (Allende Salazarreko ordezkaria)  
Anabel Gerrikagoitia (Mertzedeko ordezkaria)  
Genma Astigarraga (Barrutiako ordezkaria)  
Jorge Valiño (Barrutialdeko ordezkaria)

### **Hartu diren erabakiak:**

- 1.- Ekitaldiaren eguna:** apirilak 2, domekaz.
- 2.- Lekua erabakitzeako batzarra:** martxoak 28 (10:00etan), erabakitzeako Urbietan ala Merkatu plazan egitea.
- 3.- Gurasoen batzarra:** martxoak 30 (19:00etan), Kultur Etxean.
- 4.- Entseguak egiteko eguna:** martxoak 31, barikuz (goizeko 10:00etan txikiak eta 11:00etan nagusiak).
- 5.- Desfilerako hurrenkera (irizpidea: iazko azkena aurrera doa):**



1.- Barrutia Ikastetxea	244
2.- San Fidel ikastola	346
3.- Seber Altube Ikastola	193
4.- Mertzede Ikastetxea	208
5.- Allende Salazar Ikastetxea	471
<b>GUZTIRA</b>	<b>1462</b>

Musika eskolakoak.....30

### 6.- Egitaraua, iazko berbera:


- Dantzari dantza (agintariena, ezpata joko txikia, banango, txotxongilo).
- Makil I, makil II, txulalai, zapatain dantza, San Petrike.
- Gipuzkoako makil txiki, euzko dantza, arku-dantza, zinta dantza.
- Amaiera: Benafarroako martxa.

### PASEALEKUKO KOKAPENA



**EGURALDI TXARRA BALITZ, MERKATU PLAZAKO KOKAPENA**

DON TELLO KALEA



“Astelehena jai”  
Eskultura



**URBIETAKO FUTBOL ZELAIA (EGURALDI ONA BALITZ)**

**ARMAILAK - IKUSLEAK**

SAN FIDEL (2)

BARRUTIA (1)

MERTZEDE (4)

**A) SARRERA  
IRTEERA (1,2,3)**

**B) SARRERA  
IRTEERA\_(4, 5)**

SEBER ALTUBE (3)

ALLENDE SALAZAR (5)

**ERREKA HEGALEKO BIDEA**



## **2).- 10:00etan, XXIX. ANTZERKI JARDUNALDIAK**

### **Bertaratuak:**

Marisa Aldamizetxebarria (Euskara zinegotzia)  
 Xabier Bilbao (Berritzeguneko Euskara Teknikaria)  
 Josu Ojinaga (Seber Altubeko ordezkaria)  
 Txaro Agirre (Allende Salazarreko ordezkaria)  
 Anabel Gerrikagoitia (Mertzedeko ordezkaria)  
 Bego Zabaleta (San Fideleko ordezkaria)  
 Genma Astigarraga (Barrutiako ordezkaria)  
 Jorge Valiño (Barrutialdeko ordezkaria)  
 Luis Ortuzar (Gernika Institutuko ordezkaria)

### **Hartu diren erabakiak:**

#### **1.- Entseguetarako egunak eta orduak banatu.**

<b>EGUNAK</b>	<b>Goizez 9:30-12:30</b>	<b>Arrats. 14:30-16:30</b>
Maiatzak 17	Barrutia ikastetxea	Mertzedeko ikastetxea
Maiatzak 18	Gernika Institutua	Allende Salazar Ikastetxea
Maiatzak 23	San Fidel Ikastola	Seber Altube Ikastola

#### **2. Jardunaldi egunak: maiatzak 24, 25, 26**

<b>EGUNAK</b>	<b>Goizeko 11:00etan</b>	<b>Arrats. 3:00retan</b>
Maiatzak 24	Gernika Institutua	Mertzedeko Ikastetxea
Maiatzak 25	Barrutia ikastetxea	Seber Altube Ikastola
Maiatzak 26	San Fidel Ikastetxea	Allende Salazar ikastetxea

**3.- Sariak.- Taldeei diploma bat ematea, oroigarri gisa, eta antzerki saio baterako bono bana antzezleei.**

**4.- Otsailaren lehenengo asterako antzerki-lanaren fitxa aurkeztea:**

- Antzezlanaren titulua.
- Zuzendaria.



- Sinopsia
- Antzezleak eta pertsonaiak.

**Hurrengo gaia aztertu baino lehen, gai zerrendan aipatzen den “Gu ere bertotan” egitasmoaren barruko ikasturte amaierako ekitaldiaren eguna finkatzeari ekin zaio.-**

Euskara zinegotziak azpimarratu egin du ekitaldi hori aproposa dela familia giroan bizi izateko eta garrantzitsua litzatekeela ordutegi eta aforo aldetik guztientzat egokitzea.

Finkatu den eguna ekainaren 9a izan da, barikua, goizez. Lekuari dagokionean, aurreko ikasturtean aforo arazoak izan ziren eta erabaki da Bertsozale Elkartekoekin aztertzea Jai Alai frontoia erabiltzea egokia litzatekeen.

### **3).- 10:30ean, XVI. IDAZLAN KOADERNOAK 2017.**

#### **Bertaratuak:**

Marisa Aldamizetxebarria (Euskara zinegotzia)  
Xabier Bilbao (Berritzeguneko Euskara Teknikaria)  
Josu Ojinaga (Seber Altubeko ordezkaria)  
Txaro Agirre (Allende Salazarreko ordezkaria)  
Anabel Gerrikagoitia (Mertzedeko ordezkaria)  
Bego Zabaleta (San Fideleko ordezkaria)  
Genma Astigarraga (Barrutiako ordezkaria)  
Jorge Valiño (Barrutialdeko ordezkaria)  
Luis Ortuzar (Gernika Institutuko ordezkaria)  
Emilio Linaza (HHI-EPAn ordezkaria)

Iaz finkaturiko dinamikari jarraituz, XVI. Idazlan koadernoetarako portadak eta idazlanak aukeratzearren **hurrengo jarraibideei eustea erabaki da:**

**1).- LHko argitalpena liburu formatukoa eta DBH/Batxilergorako DIN A4 neurrikoa** (fotokopiatutako anilladuna) zentroetan erabilgarriagoa delako CD-a baino.

**2).- Liburuen portadetarako lehiaketa** bat antolatuko da, aurreko urteetakoari eutsiz (**ikus 1. eranskina**). Lanak aurkezteko epemuga: 2017ko



otsailaren 15a eta zentro bakoitzak gehien 10 lan aurkeztu ahal izango ditu (10 LHkoenak eta beste 10 DBH/Batxilergoak).

**3).- Portada lehiaketako epaimahaia** Udal Eskola Kontseilua izan beharrean, Udaleko hezkuntza sailak eratuko du berezia, aurreko ikasturtean bezala: Kultur Etxeko zuzendaria, arte eskolako ordezkari bat, berritzeguneko beste bat eta Hezkuntza arloko zinegotzia. Epai-mahaia otsailaren 15ean bilduko da udaletxean. Bestalde, lehiaketara aurkeztutako portadak erakusgai egongo dira Lizeo antzokian.

**4).- Idazlanak aurkezteko iazko baldintzak eurak mantentzea** (zentro bakoitzak aukeratuko ditu argitaratuko diren bere idazlanak; zentro bakoitzeko LHkoak 6, DBHkoak 4 eta batxilergoak guztira 10):

ZIKLOA	LAN KOPURUA	ORRI KOPURUA-IDAFTARUAK
L.H. 1. Zikloa	2 idazlan zentro bakoitzeko	Orrialde bateko lanak <b>eskuz idatzita</b> , marrazkia barru
L.H. 2. Zikloa	“ “ “ “	2 orrialdeko lanak <b>eskuz idatzita</b> , marrazkia barru
L.H. 3. Zikloa	“ “ “ “	3 orrialdeko lanak <b>eskuz idatzita</b> , marrazkia barru
DBH 1. Zikloa	“ “ “ “	3 orrialdeko lanak , marrazkia barru, <b>euskarri digitalean</b> (Word programa, letra tipoa Times New Roman, tamaina 12a, interlineatu bikoitza, orrialdeko 25 lerro)
DBH 2. Zikloa	“ “ “ “	4 orrialdeko lanak, marrazkia barru, <b>euskarri digitalean</b> (Word programa, letra tipoa Times New Roman, tamaina 12a, interlineatu bikoitza, orrialdeko 25 lerro)
HHI-EPA	2 idazlan	4 orrialdeko lanak, marrazkia barru, euskarri digitalean ( <b>Word programa, letra tipoa Times New Roman, tamaina 12a, interlineatu bikoitza, orrialdeko 25 lerro</b> )

BATXILERGOA	6 Gernika Institutukoak 4 Barrutialde Institutukoak	3 orrialde gutxienez, marrazki barik, euskarri digitalean ( <b>Word programa, letra tipoa Times New Roman, tamaina 12a, interlineatu bikoitza, orrialdeko 25 lerro</b> )
-------------	--	--

**5).- Idazlanak aurkezteko epe-muga:** otsailak 15 (Institutukoek beranduago aurkeztuko dituzte, euren lehiaketa eta Urruzuno lehiaketa bitarteko).

**6).- Irakurketa ekitaldiak:** maiatzak 4 (LHkoa) eta maiatzak 5 (DBH/Batxilegokoa). Saritzat eskola-materiala erosteko bonoak emango dira, 30 €-koak LHkoentzat eta 50 €koak DBH-Batxilergokoentzat). Bestalde, irakurketarako irakurle bakoitzak eramango du azpimarratuta irakurri beharrekoa dagokion tartean.

Gai honekin lotuta, Institutuko ordezkariak aipatu du iaz gertatu zena saihesteko kontuan hartzekoa dela aurkezpenak egiterakoan hizkuntza trataera (maila) eta gidoirako aurkeratutako gaiak. Aurkezleei horren berri ematea erabaki da.

#### **4).- 11:00etan, BERBALAGUN egitasmoarekin loturiko “hamaika orduko irakurraldia”.**

##### **Bertaratuak:**

Marisa Aldamizetxebarria (Euskara zinegotzia)  
Xabier Bilbao (Berritzeguneko Euskara Teknikaria)  
Josu Ojinaga (Seber Altubeko ordezkaria)  
Txaro Agirre (Allende Salazarreko ordezkaria)  
Anabel Gerrikagoitia (Mertzedeko ordezkaria)  
Bego Zabaleta (San Fideleko ordezkaria)  
Genma Astigarraga (Barrutiako ordezkaria)  
Jorge Valiño (Barrutialdeko ordezkaria)  
Luis Ortuzar (Gernika Institutuko ordezkaria)  
Emilio Linaza (HHI-EPAko ordezkaria)

AEKren izenean datorren dinamizatzailleak azaldu du Euskararen Eguna zapatuz dela kontuan hartuta, “hamaika orduko irakurraldia” abenduaren





1ean egiteko proposamena dakarrela. Irakurtzeko liburua aukeratzeko dago eta zehaztu bezain laster jakinaraziko zaie zentro guztiei.

Irakurketarako hurrengo txandak finkatu dira:

	<b>Eskolak</b>
9:00/10:00	Zentroa: Gernikako Institutua
10:00/11:00	Zentroa: Barrutialde Institutua
11:00/12:00	Zentroa: Mertzede ikastetxea
12:00/13:00	Zentroa: Seber Altube ikastola
13:00/13:30	Udal langileak.
13:30/14:30	Allende (13:30), Barrutia (13:45), Berritzegunea (14:00) eta EPA (14:15)..)
14:30/15:30	Zentroa: San Fidel Ikastola
15:30/16:00	Behagintza (1-2), Hitza (1-2), Oiz-mendi (1-2), Deia (1-2), Correo (1-2)/ Aldaba (1-2)
16:00/17:00	Euskaltegietako ikasleak: Udal Euskaltegikoak (3-4) eta AEK-koak (3-4) / Berbalagunkideak (5-6)
Jarraikoak...	Elkartekideak,....
19:30/19:50	Zinegotziak
19:50/20:00	Egilea

Berbalaguneko dinamizatzaileak, bide batez, iaz egindako gonbidapena berretsi egin die irakaskuntza zentroein hileroko “Ezetx jakin” lehiaketako galderak prestatzen parte hartzeko. Batzuk egin dituztela, baina gainerakoak ere 22 galdera horiek egiteko animatu ditu.

Gaineratu du gogoan hartzeko irakurraldia amaitu eta argazki orokorra ateratzen dela, gero kopau bat hartu orduko.

Gai gehiagorik ez dagoenez, amaitutzat jo da batzarra.

EUSKARA ZINEGOTZIA,

BATZORDEKO IDAZKARIA,

Marisa Aldamiztxebarria

Bittor Zarrabeitia Bengoa  
HIZK. NORM. TEKNIKARIA



## I. ERANSKINA

### XVI. IDAZLAN KOADERNOAK (2017)

## PORTADA LEHIAKETARAKO BALDINTZA ARAUAK

**1.- Partaideak.-** Gernika-Lumoko Udal Eskola Kontseiluan parte hartzen duten zentroetako ikasleek hartu ahal izango dute parte, LHko portadarako LHko ikasleek eta DBH/Batxilergoko portadarako maila bereko ikasleek.

**2.- Lanak aurkezteko epemuga 2017ko otsailaren 15a** izango da.

**3.- Lan kopurua.- LHko portadarako zentro bakoitzak 10 lan aurkeztu ahal izango ditu, aldez aurretik aukeraketa zentroak berak eginda. DBH/Batxilergorako ere beste horrenbeste, 10 lan zentro bakoitzak.**

**4.- Lanen ezaugarriak:**

- **A4 neurrikoak izango dira.**
- **LHko lanak eskuz** egindakoak izango dira, baina kontuan hartu beharko da eskaneatzeko edo digitalizatzeko egokiak izan beharko direla, erreliebe bakoak. Epaimahaiak ere kontuan hartuko du baldintza hori hautaketarako.
- **DBH/Batxilergoko lanak euskarri digitalean** aurkeztu beharko dira, A4 neurrian inprimatzeko modukoak.
- Lan guztietan honako **testua** agertu beharko da, egilearen kabuz islatuta:
  - LHko portadarako:  
**LEHEN HEZKUNTZA-2017**  
**XVI. IDAZLAN KOADERNOA**
  - DBH/Batxilergoko portadarako:  
**DBH/Batxilergoa – 2017**  
**XVI. IDAZLAN KOADERNOA**



**5.- Aurkeztutako lan bakoitzak “goitzen bat” izango du eta goitzen hori idatzita izango duen kartazal itxi batean egilearen datuak jarriko dira**

6.- **Epaimahai berezi batek ebatziko du lehiaketa**, hurrengo hauek osatuko dutena: Hezkuntza zinegotzia, Euskara zinegotzia, Kultur Etxeko Zuzendaria, Berritzeguneko ordezkari bat, Arte Eskolako ordezkari bat).

7.- Azken fasera aurkeztutako lan guztiekin **erakusketa bat egingo** da Lizeo antzokiaren sarrera lekuan, irakurketa ekitaldien egunetan eta hurrengoetan ikusgai egongo dena.

**8.- Sariak:** Idazlan Koadernoan argitalpenetako portadetan egileen izenak jarriko dira eta irakurketa ekitaldietan, maiatzaren 4an eta 5ean, aipamena egiteaz gain, eskola materiala erosteko bonoak emango zaizkie (30€ LHkoa eta 50€ DBH/Batxilergokoa).

